

Grabitate ezaren ondorioak

EGUNGO TEKNOLOGIAREKIN espazioa kolonizatzea oso zaila izango da gizakiarentzat, gure gorputza grabitatearekin bizitzeko eginda baitago.

Joan den mendean sateliteak espazioratzen hasi zirenetik, milaka animalia bidali izan dira saiakerak egiteko asmoz. 1991ko ekainean, *Columbia* satelitean, 2.478 marmoka bidali zituzten, polipo eran. Animalia horiek hainbat oinarritzko mugimendu egiten dute grabitateari esker, eta haren faltak nola eragingo zien aztertu nahi zuten zientzialariek.

Marmokak jaio, hazi eta ugaltu egin ziren espazioan, eta urte batzuk geroago 60.000 ale ekarri zituzten espaziotik Lurrera. Espazioan jaiotakoak ongi bizi izan ziren espazioan izan ziren bitartean, baina lurreratzean anormaltasun ugari izan zituzten grabitatearen eraginez. Zientzialariak ez dira ausartu marmokei gertatutakoa gizakiari estrapolatzen, baina oso litekeena da guri gauza bera gertatzea egoera horretan jarritz gero. Zailtasun handia izango litzateke espazioaren kolonizazio bidean. ■



CLICKSY-CC BY

Espazioan jaiotako marmokek ez zuten arazorik eduki espazioan egon ziren bitartean, bai ordea Lurrera itzultzean.



Hirietako zorupea, energi iturri naturala

Hirietako —batez ere handietako— lur asfaltatuak, metroa, urbanaketarako tutueriak eta beste hainbeste azpiegitura beroaren gordailu dira. Hau da, nolabait esatearren energia geotermikoa metatzen dute.

ttiki.com/57345
(Gaztelaniaz)

Karbonozko nanotutuek ordenagailuetan

Karbonozko nano-tutuek siliizioak baino 70 aldiz hobeto garraiatzen dute elektrizitatea, eta gainera askoz leku gutxiago betetzen dute. Antza, nanotutuen teknikak zirkuitulaburren arazoa izan du orain arte, baina AEBetako Stanford Unibertsitatean lortutakoak ordenagailuen teknologia klasikoa iraul dezake.

ttiki.com/57346
(Frantsesez)

Onddoak baratzerara bidean

HECTOR LEON



Boletus aestivalis espezieko onddoak.

gakoak. Lehen landaketa urtebete barru egitea espero dute; ba omen dituzte eskaerak Euskal Herrian eta Italian. Hori bai, ez dugu ezer ere irakurri onddo horiek izango dituzten zaporeaz eta estetikaz. Perretxikozaleontzat kontu garrantzitsuak, inondik ere. ■

ELHUYARREK kudeatzen duen zientzia.net atarian irakurri dugunaren arabera, Zumaiako Jaime Olaizola mendi-ingeniariak sortu eta zuzentzen duen ID Forest enpresak boletusak landatzeko bidea asmatu du, eta laster komertzializazioari ekingo diote.

Horretarako faktore ugari kontrolatu behar izan dute. Hautaketa genetikoak, zuhaitz egokiek eta lur mota azido samarrak omen dira boletusak hazteko



Landareen eragina karbono dioxidoaren xurgaketan

AEBetako Princeton unibertsitateko ikerlari talde batek *PNAS* zientzi aldizkarian argitaratu emandako artikulua batek dio munduko landareari esker ia 200.000 milioi tona karbono dioxido xurgatu direla. Zifrak garrantzi handia dauka; besteak beste, lortu den lehen zenbakizko datu errealitateko bat delako.

ttiki.com/57347
(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16